

### **3. GAIA: “Delazioa”**

#### **I.-ARAUDIA**

##### **Kode zibila**

#### **II.-OINORDETZEKO GAITASUNA**

Honako gai honetan DELAZIOAREN etapa jorratuko dugu. Gogora dezagun delazioa kausatzailearen oinordetzan parte-hartzeko deialdi zehatza dela, deituei luzatzen zaien gonbitea haren jaraunspena onartzeko edo zapuzteko, bai testamentu bidez antolatu badu kausatzaileak bere oinordetza baita legeak finkatu baditu ere oinordetzeko arauak. Bi kasuetan delazio fasea ezinbestekoa da, dakigunez, deituek jaraunspena eskuratzeko berau onartu behar baitute behin *ius delationis*-a haien alde dutenean. Baina, deituak jaraunspena onartu edo zapuztu baino lehen OINORDEKO IZATEKO GAITASUNA eduki behar du, bai gerora jaraunspena onartu ahal izateko bai legatua jasotzeko ere. Deituak ez badu gaitasunik, ezin izango du oinordetzaren zikloan aurrera jo. Azter dezagun, ba, gaitasunaren esparrua.

##### **1.-Arau orokorra**

Pertsona oro, berez, kausatzaile izango da noizbait. Oinordeko izateko, berriz, gaitasunari buruzko zenbait ñabardura kontuan izan behar dira.

Kode Zibileko 744. artikulua ezartzen du oinordeko izateko gaitasuna zehazten duen erregela orokorra: *podrán suceder por testamento o abintestato los que no estén incapacitados por la ley*. Legeak ez du inor ezgaitzen modu orokorrean; beraz, hasteko, posible den gaitasunik zabalena ezarri, eta, gero, norbait ezgaitzeko, legeak esanbidez agindu behar du.

Pertsona fisikoak nahiz juridikoak izan daitezke oinordeko (κzeko 35, 38 eta 746. art.ak). Pertsona juridikoak borondatezko oinordetzaren bitartez bakarrik izan daitezke oinordeko, kasu bakarrean izan ezik: **Estatua** legez —*abintestato*, alegia— izan daiteke oinordeko, pertsona juridiko gisa (κzeko 956. art.).

Baina, pertsonaz ari garenez, eztabaidatzen da ea oinordeko izateko kausatzaileak eta oinordekoak aldi berean existitu behar duten ala ez; izan ere, norbaiten lekuan beste norbait jartzeaz ari bagara (oinordetza), logikak agintzen du oinordekoa izango den pertsonak existitu behar duela. Oinordekoak kausatzailea hil ondoren bizi behar duela eskatzea ez du inork zalantzan jartzen, logikoa baita. Arazoa da erabakitzea kausatzailea hiltzeko unean existitu behar duen, edo gerora sortzekoa ere oinordekotzat har daitekeen.

Eztabaidak eta ondorengo erabakiak garrantzia dute honako hiru suposamendu hauetan:

- (1) Sortzekoa (*concepturus* edo *nondum concepti*).
- (2) Sortua edo jaiotzekoa (*nasciturus*).
- (3) Sortzeko dagoen pertsona juridikoa.

Lehenengo kasuan, oraindik **sortu gabeak** (*concepturus*) oinordeko izendatu daitezkeen ala ez erabaki behar da. Kode Zibileko 29. artikuluari (jaiotzak zehazten du nortasuna) eta 758. artikuluari (oinordekoaren gaitasuna kalifikatzeko, kausatzailea hil den unea hartuko da kontuan) jarraiki, existentziarik ez duenak ez du gaitasunik eta ezin da oinordeko izan (AGE 1935/11/29 [C.L., 139. alea, 371. or.]). Jurisprudentiak ñabartu egin du arau orokor hori: oraindik sortu gabekoa oinordeko izan daiteke, baldin eta identifikagarria bada eta pertsona izatera iristean nor den jakiten bada (AGE 1965-4-3 [RAJ 1979], 1991/5/23 [RAJ 3786] eta 1998/2/9 [RAJ 609]). Jarrera hori hartzeko, bi oinarri juridiko erabiltzen dira: *fideikomiso*zko *ordezpenean* onartzen da sortzekoa izendatzea (KZeko 781. art.), eta identifikagarriak izateak bideratzen du baldintza esekitzailearen araudia aplikatzea, sortzeko horiek ordezkatzeko eta babesteko (KZeko 801. art. eta hurrengoak).

AGE 1963/4/25 : “En nuestro Derecho positivo no existe prohibición alguna respecto a la posibilidad de suceder *mortis causa* de las personas no nacidas no todavía engendradas, siempre que sean de algún modo identificables e identificadas en su existencia real como tales personas, pues en otro caso la institución por ser a favor de un sujeto incierto, sería ineficaz en derecho con verdadera ausencia del destinatario de la herencia o legado; y es de subrayar que en bastantes ocasiones los testadores se limitan a designar a sus causahabientes con paladina y concreta expresión de sus ascendientes, vivos o ya fallecidos, sin que tal forma implique causa de nulidad ante la certeza del beneficiario”.

Bigarrenik, **sortuari edo jaiotzekoari** dagokionez (*nasciturus*), Kode Zibileko 29. artikulua dio oinordeko izateko eskubidea duela, 30. artikulua adierazten dituen baldintzekin jaiotzen bada: *el concebido se tiene por nacido para todos los efectos que le sean favorables, siempre que nazca con las condiciones que expresa el artículo siguiente*. Aldeko eragin horiek oinordetzari buruzko eremuan bakarrik agertzen dira. Jaio bitartean, beraren aldeko bokazioa dago; oinordetzara deitua da, alegia baldintzapean bada ere; oinordeko izateko gaitasuna lortzeko baldintzapean. Baina, delaziorik ez dago, ez baitu onartzeko gaitasunik, ezta bere legezko ordezkari bidez ere (dohaintzan, aldiz, kontrakoa gertatzen da: KZeko 627. art.). Hala, KZeko 30. artikulua araberara jaio dela egiaztatu beharko da eta hau gertatzen denean, orduan izango du bere alde umeak delazioa (oinordetzeko gaitasuna izango du eta, pertsona delako dagoeneko) eta bere ordezkari legalek onartu edo zapuztuko dute, bere izenean, kausatzailearen jaraunspena. Bitartean, oinordetza horretan dagokion zatia administraziopean jarriko da. Sortua egon eta jaiotzeko dagoenaren erregimena osatzeko, kontuan izan behar dira, halaber, 959.-964. artikulua; hain zuzen ere, alargunak, haurdun geratu denean jaso behar duen arretari buruzko arauak. Ondasunak administratzeko ardura nori duen eta modua PZLko 797.-805. artikuluen araberara zehaztuko dira. Gaur egun, lagundutako giza-ugalketari buruzko 14/2006 Legeak filiaziozko erlazioak eratzeko aukerak, bereziki pertsona hila egonagatik bere aitatasuna ezartzeko moduak ere kontuan izan behar dira.

Azkenik, sortzeko dauden **pertsona juridikoei** dagokienez, bi egoera aipatu behar dira: oraindik *existitzen ez dena*, esaterako testamentuan bertan sortzen den fundazioa; edo *sortzeko prozesuan dagoena*. Bietan onartzen da oinordeko izendatzea, ostera pertsonalitatea lortzeko baldintzarekin. Kasu horretan, sortzeko edo jaiotzeko dagoen pertsona fisikoaren defentsarako arauak analogiaz aplikatzen dira.

AGE 1986/11/28 (RAJ 6622): “Aunque se sostuviese el comienzo de su personalidad (de la persona jurídica) por el cumplimiento de ese requisito administrativo, no podría negarse que con anterioridad se hallaba en fase de constitución, lo que posibilita su aptitud para suceder por testamento siempre que lleguen válidamente a constituirse, al modo como por analogía ocurre con las personas físicas concebidas y no nacidas (artículo 29, 959, 964, 644, párrafo 1 y 966 del Código civil) y también para los no concebidos en algunos casos, como en las sustituciones fideicomisarias (artículo 781). E incluso es frecuente que los nudos propietarios designados en esas sustituciones sean personas no concebidas. La doctrina científica no ve obstáculo alguno en que los *concepturus* sean declarados herederos, no ya sólo por vía indirecta de la

sustitución, sino también por la vía directa de la institución. O se ha permitido -caso de la sentencia de 2 de junio de 1952-, atendiendo a la voluntad del testador, que una vez cesado un usufructo se interprete aquella voluntad a través de la creación de una fundación como medio de cumplirla. Y en ningún momento en el caso de la litis se dudó de la certidumbre de la entidad instituida heredera y de su identificación”.

Azken batean, noski, oinordeko izateko gaitasuna badago kasu horietan guztietan, oinordetza irekitzen den unean azertu beharrekoa, baina baldintzapekoa da (κzeko 758.3 eta 801. art.ak).

## 2.-Ezgaitasun absolutuak

Legeak aginduta, oinordeko izateko ezgaiak dira beti: *1. Las criaturas abortivas, entendiéndose tales las que no reúnan las circunstancias expresadas en el artículo 30. 2. Las asociaciones o corporaciones no permitidas por la ley* (κzeko 745. art.).

AGE 1981/11/4 (RAJ 4729): “El principio establecido en la Constitución, art. 22 núm. 1, es el de libertad cuyo límite tan sólo se encuentra en el ilícito penal, amén de la prohibición de «secretas o paramilitares», y sin que la Administración cuente con poderes o facultades de calificación del título de constitución o Estatutos (programa orgánico) más allá de las formalidades extrínsecas del documento -y sin perjuicio de los supuestos de suspensión y traslado a la autoridad judicial en los casos de ilicitud penal, etc.-, como trámite de admisión al registro que según el sistema permisivo que la Constitución instaura lo es a los simples efectos de publicidad”.

Kasu horietan, sortua pertsona izatera ez da iritsi; alegia, nortasunik ez du lortu, ez da pertsona eta, ondorioz, gaitasunik eza baino, existentziarik eza dago. Oinordekoa izateko, nortasuna eduki behar da lehenengo, eta KZeko 30. artikulua araberak jaiotzeak ekartzen du hori. Honexegatik bereizi behar da, argi eta garbi, oinordeko izateko gaitasuna (gaitasun juridikoa behar da) eta jaraunspena onartzeko edo zapuzteko gaitasuna (jarduteko gaitasuna behar da).

## 3.-Ezgaitasun erlatiboak

Bereizi behar dira *oinordeko izateko gaitasuna*, oro har, eta *kausatzaile jakin baten oinordekoa izateko gaitasuna*. Hasteko,

pertsona orok du oinordeko izateko gaitasuna, baina, zenbait inguruabarrengatik, legeak ez die uzten oinordeko izaten egoera berezian dauden zenbait pertsonari, batik bat kausatzailearen borondatea bermatzeko. Inguruabar horiek borondatezko oinordetzan bakarrik gerta daitezke, izan ere, azken borondatea adierazten duenaren nahiaren gain eragina izateko aukeran egotea da komunean duten elementua. Gaitasuna murrizteko kausak direnez, hertsiki interpretatuko dira kasu guztietan.

Honako hauek dira ezgaitasun erlatiboen ezaugarri nagusiak: (a) borondatezko oinordetzan bakarrik gerta daitezke; (b) oinordetzaren aurretik dagoen egoera dela eta gertatzen dira; (c) ez dute ezer zigortzen; eta (d) borondate-adierazleak (testamentugileak, esaterako) ezin ditu baztertu edo ekiditu.

Inguruabar horiek eta, ondorioz, ezgaitasun erlatiboa ezartzen zaien pertsonak honako hauek dira:

(1) *No producirán efecto las disposiciones testamentarias que haga el testador durante su última enfermedad a favor del sacerdote que en ella le hubiese confesado, de los parientes del mismo dentro del cuarto grado, o de su iglesia, cabildo, comunidad o instituto (kzeko 752. art.).* Aitortza ez da presumitzen eta, beraz, frogatu egin beharko da (AGE 1928/10/25).

AGE 1954/4/6 (RAJ 1551): “Que el artículo 752 del Código Civil es de interpretación restrictiva por contener una disposición que limita la libertad de testar en que se inspira nuestra legislación civil, teniendo este artículo su antecedente, como ya se ha dicho, entre otras Sentencias de esta Sala en la de 25 de octubre de 1928 en la Ley Quince Título XX Libro X de la Novísima Recopilación, con la que se trata de evitar una posible sugestión o captación de voluntad dado el estado del testador, lo que lógicamente no puede realizarse cuando el testamento es anterior a la confesión”.

(2) *Tampoco surtirá efecto la disposición testamentaria a favor de quien sea tutor o curador del testador, salvo cuando se haya hecho después de aprobadas definitivamente las cuentas o, en el caso en que no tuviese que rendirse éstas, después de la extinción de la tutela o curatela. Serán, sin embargo, válidas las disposiciones hechas a favor del tutor o curador que sea ascendiente, descendiente, hermano, hermana o cónyuge del testador (kzeko 753. art.).* Kuradoreak oro har aipatzen dira, kontuan izan gabe bi motatakoak izan daitezkeela: ezgaituaren pertsonalitatea osatzeko izendatuak eta gaitasun osoa duten pertsonen zenbait egintza juridikotan laguntzeko izendatuak; debekua bigarren horiei

aplikatzeak ez du zentzurik, borondatea erakartzeko arriskurik ez baitago.

(3) *El testador no podrá disponer del todo o parte de su herencia a favor del Notario que autorice su testamento, o del cónyuge, parientes o afines del mismo dentro del cuarto grado, con la excepción establecida en el artículo 682. Esta prohibición será aplicable a los testigos del testamento abierto, otorgado con o sin Notario. Las disposiciones de este artículo son también aplicables a los testigos y personas ante quienes se otorguen los testamentos especiales (κzeko 754. art.).*

Artikulu horietan aipatutako ezgaitu erlatiboen aldeko xedapena deuseza da eta legeari muzin egiteko asmoz erabilitako bideak ere bai: *será nula la disposición testamentaria a favor de un incapaz, aunque se la disfrace bajo la forma de contrato oneroso o se haga a nombre de persona interpuesta* (κzeko 755. art.). Eztabaidatu daiteke teknikoki zer gertatzen den: testamentuko xedapena deuseza izatea eta, beraz, bokaziorik ez egotea; edo deituak oinordeko izateko gaitasunik ez izatea eta, beraz, bokaziorik bai, baina delazio-eskubidea eraginik gabea izatea. Azken aukera honen ildotik, badirudi doktrinaren gehiengoak **delazioaren deuseztagarritasunaren** aldeko apostua egiten duela. Deituaren ezgaitasun erlatiboa dela eta, interesdunek haren aldeko delazioa deusezteko akzioa egikaritu dezakete jaraunspena edo legatua jaso eta bost urteko apean (KZeko 760 eta 762. art.ak).

#### **4.-Oinordeko izateko duintasun eza edo ezduintasuna**

Norbaitek kausatzailearen aurka egindako zerbait zigortzeko *tipo zibila* da oinordeko izateko duintasunik ez izatea; portaera bat dela eta, kausatzailearen oinordekoa izateko norbaitek duintasunik ez duela uste izaten da. Berez, bokazioa badago, baina delazioak huts egiten du, edo huts egin dezake, behintzat.

Ezgaitasun erlatiboa eta duintasun eza batera arautzen dira. Bietan, kausatzaile jakin batekiko galtzen da oinordekoa izateko gaitasuna, eta ondorioak berdinak dira. Zerk bereizten ditu orduan? Ezgaitasun erlatiboa beti oinordetza ireki aurretik gertatzen den egoera batetik sortzen da, eta azken borondatea adierazten duenari xedatzeko askatasuna mugatzen zaio; ezduintasunean, berriz, moralki edo etikoki zuzena ez den portaera bat dago, oinordetza ireki aurretik edo ondoren egin dena. Lehen kasuan, benetako ezgaitasun erlatiboa sortzen da eta, bigarrenean, berriz, oinordetzatik baztertzeak aukera egongo da delazio-eskubidea izan arren. Dena den, borondate-emailearen askatasuna ez da mugatzen, duintasunik gabekoa esanbidez oinordeko izenda baitaiteke; eta gainerako

oinordekoek ere onar baitezakete oinordekoa izatea. Barkatu daiteke bere portaera ez duina, beraz. Gainera, ezgaitasun erlatiboak soilik ematen dira testamentu bidezko oinordetzan, eta ezduintasunaren efektuak, aldiz, testamentu bidezko eta legezko oinordetzan ematen dira.

Kode Zibileko 756. artikuluan biltzen dira duintasunik ez egoteko kausak gehienak :

*1º Los padres que abandonaren, prostituyeren o corrompieren a sus hijos.*

*2º El que fuere condenado en juicio por haber atentado contra la vida del testador, de su cónyuge, descendientes o ascendientes.*

*3º El que hubiese acusado al testador del delito al que la ley señale pena no inferior a la de presidio o prisión mayor, cuando la acusación sea declarada calumniosa.*

*4º El heredero mayor de edad que, sabedor de la muerte violenta del testador, no la hubiese denunciado dentro de un mes a la justicia, cuando ésta no hubiera procedido ya de oficio.*

*5º El que, con amenaza, fraude o violencia, obligare al testador a hacer testamento o a cambiarlo.*

*6º El que por iguales medios impidiere a otro hacer testamento, o revocar el que tuviese hecho, o suplantare, ocultare o alterare otro posterior.*

*7º Tratándose de la sucesión de una persona con discapacidad, las personas con derecho a la herencia que no le hubieren prestado las atenciones debidas, entendiéndose por tales las reguladas en los artículos 142 y 146 del Código Civil.*

*Tendrán la consideración de personas con discapacidad: a) Las afectadas por una minusvalía psíquica igual o superior al 33 por ciento; b) Las afectadas por una minusvalía física o sensorial igual o superior al 65 por ciento (κζεκο 4. xG).*

Kode Zibilean bertan, beste kausa batzuk ere jasotzen dira:

(1) Kodeko 756.6. artikuluekin bat datorrena: *el que con dolo deje de presentar el testamento cerrado que obre en su poder dentro del plazo fijado en el párrafo segundo del artículo anterior, además de la responsabilidad que en él se determina, perderá todo derecho a la herencia, si lo tuviere como heredero ab intestato o como heredero o legatario por testamento; en esta misma pena incurrirán el que sustrajere dolosamente el testamento cerrado del domicilio del testador o de la persona que lo tenga en guarda o depósito, y el que*

*lo oculte, rompa o inutilice de otro modo, sin perjuicio de la responsabilidad criminal que proceda (kzeko 713. art.).*

(2) Oinordetzako eskubideak galtzea, duintasun ezaren kausan egon ez arren. Legez dagozkionak (senipartea eta *ab intestato* oinordetza) kasu honetan: *quedará excluido de la patria potestad y demás funciones tuitivas y no ostentará derechos por ministerio de la Ley respecto del hijo o de sus descendientes, o en sus herencias, el progenitor: 1º cuando haya sido condenado a causa de relaciones a que obedezca la generación, según sentencia penal firme; 2º cuando la filiación haya sido judicialmente determinada contra su oposición (kzeko 111. art.).* Oinordetzaren gaineko eskubideak ere gal daitezke, baina seniparteari eutsiz, 257. eta 900. artikuluetako kasuetan.

Aseguru Legeko 92. artikulua ere kausa horien parekoa da helburu berbera lortzeko: *la muerte del asegurado, causada dolosamente por el beneficiario, privará a éste del derecho a la prestación establecida en el contrato.* Dena den, aseguru-etxeek ordaintzen duten kalte-ordaina, jaraunspenetik kanpo dago, baita gizarte-segurantzak alargunari ordaintzen dion dirulaguntza ere.

Duintasun gabeko kausa horiek ez dira nahasi behar *desjaraunspen* kausekin (kzeko 852. art. eta hurrengoak); halakoetan, kausatzaileak senipartea kentzen dio nahitaezko jaraunslari esanbidez.

Adierazi bezala, Kode Zibileko 757. artikulua adierazten duen aukera da ezaugarri nagusia: *las causas de indignidad dejan de surtir efecto si el testador las conocía al tiempo de hacer testamento, o si habiéndolas sabido después, las remitiere en documento público.* Beraz, **barkatzeko** bi modu daude: isilbidez, azken borondatea adierazi aurretik duinik gabeko portaeraren berri bazuen kausatzaileak, testamentuan ezduina sartuz; eta, esanbidez testamentuan edo dokumentu publikoan barkamena adieraziz. Kode Zibileko 111. artikulua jasotako suposamenduan, arau berezia ezartzen da duinik gabea bergaitzeko aukerari buruz hirugarren lerroaldean: *dejarán de producir efecto estas restricciones por determinación del representante legal del hijo aprobada judicialmente, o por voluntad del propio hijo una vez alcanzada la plena capacidad.*

Ezduinaren kontrako ezgaitze-akzioa interesa duen orok egikari dezake, jaraunspena ezgaiak edo duinik gabeak onartu aurretik (ez luke jaraunspenik jasoko) edo onartu ondoren (jasotakoa itzultzera behartua izango da); zigor zibila denez, egikari daiteke ezgaia edo duinik gabea hil eta gero. Gaitasuna eta, beraz, ezgaitasun erlatiboa eta duintasun eza kalifikatzeko, oinordetza ireki den garaia hartuko da kontuan (kzeko 758. art.).



**Eraginei dagokionez** bai ezgaitasun erlatiboan, bai duintasun gabeko kasuetan, oinordekoa izateko eskubidea eskuratzen da hasiera batean, baina oinordekoa izateagatik sor daitezkeen eraginak deuseztagarriak dira, esan bezala. Kode Zibileko 762. artikulua, hain zuen ere, zera ezartzen du: *no puede deducirse acción para declarar la incapacidad pasados cinco años desde que el incapaz esté en posesión de la herencia o legado*. Ondorioz, eraginkortasunik gabea dela deklaratzeko eskatzen bada, deusezetasuna hasieratik balego bezala jokatuko da, eta, ez bada eskatzen, denborak sendotu egingo du egoera. Ezgaitasuna edo duintasun eza deklaratzeko atzeraeragina izango du egindako deia suntsitu eta oinordetza ireki zen unera arte; ondorioz delazio-eskubidea egikaritu eta jaraunspena onartu badu, jasotako gauzak eta haien fruituak eta akzesioak itzuli beharko ditu (KZeko 760. art.); izan ere, ezduinak jaso lezake baina eutsi ez (*potest capere sed non potest retinere*). Edukitza-egoera kitatzeko, jaraunspena eskatzeko akzioari buruz ezarritako arauak aplikatuko dira lehenik, ezgaia edo duinik gabea itxurazko jaraunspena delako.

Erabaki behar da ere ezduinak bere **senipartea** galtzen duen ala ez. Kodeak arazo horri buruzko bi erreferentzia jasotzen ditu, bata 756.2.2. artikuluan, eta, bestea, berriz, 761. artikuluan; azken artikulua horrek ezgaitasuna aipatzen badu ere, duintasun ezari bakarrik aplikatu dakioke berez. Arau horiek oinarri juridikotzat hartuta, ondorioztatzen da senipartedunak bere seniparte eskubidea galtzen duela. Duinik gabearen ondorengoek eskuratuko dute seniparte-eskubidea, baina ez besterik. **Abintestato** bokazioan deitutako jaraunspena ere galduko luke ezduinak.

### **III.-OINORDETZEKO AZTERTZEKO MOMENTUA**

### **GAITASUNA**

KZeko 758. artikulua honako hau dio: *para calificar la capacidad del heredero o legatario se atenderá al tiempo de la muerte de la persona de cuya sucesión se trate*. Ikus dezakegunez, Kodeak ez ditu egoki erabiltzen jaraunspena eta legatu-hartzaile hitzak, izan ere, jaraunspena edo legatua onartu arte, DEITUAK baitira, soilik. Edozelan ere, deituen gaitasuna, printzipioz, oinordetza irekitzean neurtu behar da, kausatzailea hiltzen denean, beraz.

Hala ere, 758. artikulua ñabardura batzuk ezartzen ditu deituaren gaitasunaren inguruan. Bigarren paragrafoan, artikulua zera dio: *en los casos 2º y 3º del artículo 756 se esperará a que se dicte la sentencia firme y en el número 4º a que transcurra el mes señalado para la denuncia*. Ezduintasun kausa hoietan, orduan, 756.

artikuluak ezartzen duen epe hori itxaron beharko da jakiteko deitua ezduina den ala ez; oinordetzeko gaitasuna duen ala ez ezagutzeko, alegia.

Hirugarren paragrafoan, 758. artikuluak honako hau gaineratzen du: *si la institución o legado fuere condicional, se atenderá además al tiempo en que se cumpla la condición*. Beraz, baldintzapeko deialdiei buruz ari garenean, baldintza bete behar denerarte itxaron beharko da deitua gaia den ala ez jakiteko.

#### **IV.-IUS TRASMISSIONIS (KZeko 1.006. art)**

Delazio-eskubidea (*ius delationis*), hots, kausatzailearen jaraunspena onartzeko edo zapuzteko ahalmen juridikoa, izaeraz transmitigarria da, jaraunsteen alde bada eta *mortis causa*. Deitua hiltzen bada jaraunspena onartu edo zapuzteko eskubidea egikaritu gabe, eskubide hori bere jaraunleengana igaroko da. Beraz, eskubidea transmitituz gertatzen da oinordetza hori deituaren jaraunleekiko (oinordetza *iure transmissionis*). Hain zuzen, horixe adierazten du Kode Zibileko 1006. artikuluak: *por muerte del heredero sin aceptar ni repudiar la herencia pasará a los suyos el mismo derecho que él tenía*. Arau hori, dena den, ez da nahitaezkoa eta, kausatzaileak agindu dezake bizi bitartean egikaritu beharra edo beste norbaiti deitzea.

Objektuari dagokionez, ***jaraunspena eskuratzeko eskubidea transmititzen*** da, ez jaraunspena bera; ez dago delazio berririk, jadanik indarrean dagoen delazioa edo deialdia transmiti baitaiteke. Subjektuei dagokienez, oinordetzara deitutakoaren oinordetzara deitzen denarengana igaroko da eskubide hori; eta ez hasierako kausatzaileak izan ditzakeen beste deituengana, hildakoa baztertuz.

[K hil da eta R bere oinordetzara deitua dago. R bere delazio eskubidea egikaritu gabe hiltzen bada, bere oinordetzara deituak dauden M eta Nri igaroko zaie R-k zuen eskubide bera, hau da, Kren jaraunspena onartzeko edo zapuzteko eskubidea].

Izaeraz, legea dela medio (*ope legis*) gertatzen da transmisio hori, oinordetzara deitua izan eta gero hil denaren borondateak parte hartu gabe; alegia, transmisioa automatikoa da. Bestalde, oinordetzara deituak hil aurretik adierazi izan balu norbaiti uzten diola bere delazio-eskubidea, jaraunspena eskuratutzat joko zaio hari (KZeko 1000.1. art.); beraz, kasu horretan ez du delazio-eskubidea transmititzen, jadanik eskuratutako jaraunspena baizik. Ezin du deituak bere delazio-eskubidea besterendu, Kodeak 1.006. artikuluan aurreikusten duen hipotesitik kanpo.

Jaraunsle izatera deitua izan ondoren, hil denaren jaraunsle izatera deituak jaraunspena onartzen badu, eztabaidatzen da ea transmisioa izaeraz nola gertatu den eta, ondorioz, jaraunsle izatea nola eskuratzen den. Bi aukera daude:

(1) Transmisio zuzena gertatu dela uler daiteke, hasierako kausatzailearengandik eskuratzailearengana zuzenean.

(2) Eskuratzea zeharkakotzat har daiteke, deitua izan eta hil denaren oinordetza bidez gertatu bada. Bata edo bestea onartzeak badu garrantzirik eraginak zehazteko.

Doktrinan, bigarren jarreraren aldekoa da gehiengoa. Hala, bigarren kausatzailearen jaraunslatzat hartzen denez (R, gure adibidean), delazio-eskubidea jasotzen duenak (M eta N) ezin du bigarren kausatzailearen jaraunspena zapuztu eta lehenengoarena onartu, eskubide hori bigarrenaren jaraunspenean dagoelako; aitzitik, bigarrena onartu eta lehenengoa zapuztu dezake. Horregatik, halaber, delazio-eskubidea jaso duenak lehenengo kausatzailearen jaraunspena zapuzten badu, bigarren kausatzailearen hartzekodunek onar dezakete jaraunspen hori (KZeko 1001. art.). Noski, bi dei horiek onartuz gero, eskuratzeak atzeraeragina izango du lehenengo kausatzailea hil zen uneraino.

Oinordetzeko gaitasunaren betekizunak aztertzeke, jaraunsearen eta bere kausatzailearen arteko harremana izango da kontuan; horrenbestez, bigarren kausatzailearekin duten harremanaren arabera erabakiko da deituaren gaitasuna. Bigarren kausatzaileak lehenengoaren oinorde izateko gaitasuna baldin bazuen, delazio-eskubidea beraren ondarean sartu da, eta haren jaraunselek ez dute harremanik lehenengo kausatzailearekin gaitasuna neurtzeko.

## **V.-ORDEZKATZE-ESKUBIDEA (KZeko 924-929 art)**

Hasteko, oinordetzaren eremuan erabiltzen diren bi termino bereizi behar dira: *ordezkapena* (representación) eta *ordezpena* (sustitución). Oro har, ordezkapena beste norbaiten izenean aritzea da; eta ordeztea, berriz, beste norbaiten ordeztu aritzea, esaterako, oinordetzaren eremuan, ordezpen arrunta, pupilarra, kuasi-pupilarra eta fideikomisoak. Atal honetan ordezkapena dugu aztergai, ordezpenak aurrerago jorratuko ditugu. Hala ere, ordezkapen hitza ez dator bat gaitasunean eta negozio juridikoan erabiltzen den esanahiarekin, oinordetzan ordezkatzeko den pertsona hilda egon daitekeelako eta, beraz, haren borondatea edo gaitasun eza ezin delako ordezkatu. Oinordetzako ordezkapenak esanahi berezia du,

legez eskuratzen den eskubidea baita eta, orobat, oinordekoa zehazteko modua. Hala, **ordezkatzea** deituko diogu, negozio juridikoen eremuan lantzen den ordezkapenetik bereiztearren, alegia.

Eremuaren ikuspegitik, **legezko oinordetzan bakarrik** gertatzen da ordezkatzeko eskubidea (*abintestato* oinordetzan, alegia); borondatezkoan, kasu bakarrean agertzen da, salbuespen gisa (κzeko 814.3. art.).

Kode Zibileko 921. artikuluan dago ordezkatzeko eskubide horren abiapuntua: *en las herencias el pariente más próximo en grado excluye al más remoto, salvo el derecho de representación en los casos en que deba tener lugar.* Kode Zibileko 924. artikulua adierazten du ordezkatzeko eskubide hori: *llámase derecho de representación el que tienen los parientes de una persona para sucederle en todos los derechos que tendría si viviera o hubiera podido heredar.*

Eskubide hori eskuratzeko, honako **betekizun** hau eskatzen da: ordezkatu den pertsonak ez du eskuratu delazio-eskubidea, bere borondatez kanpoko arrazoiren bat egon delako. Arrazoi horiek, aipatu berri den artikulutik eta 929. artikulutik ondorioztatzen dira: *no podrá representarse a una persona viva sino en los casos de desheredación o incapacidad.* Jaraunsle izan zitekeena aurrez hiltzea da suposamendurik arruntena (*premoriencia*); beraz, hildako pertsona ordezkatzeko aukera ematen du legeak. Jaraunsle izan zitekeena bizi bada, hura ordezkatzeko eskubidea dago, desjaraunsteko edo ezgaitzeko arrazoirik egonez gero. Ezgaitasun-kasua aipatzen bada ere, ezinezkoa da ordezkatzeko eskubiderik egotea berez ezgaitasuna dagoen kasuetan: ezinezkoa delako pertsona batek erabateko ezgaitasuna izatea, eta ezgaitasun erlatiboa borondatezko oinordetzan bakarrik gerta daitekeelako. Beraz, norbait duitasun ezerengatik oinordetzatik baztertzen bada, orduan bakarrik erabiliko da bizi den norbait ordezkatzeko eskubidea, baldin eta kausatzaileak borondaterik adierazi ez badu eta oinordetzara deitua ezduintzat jotzen ez bada. Laburbilduz, hiru dira ordezkatzeko eskubidea martxan jartzeko kausak: oinordetza batera deitua izan dena kausatzailea baino LEHENAGO HIL izana, DESJARAUNSTUA izana edo EZDUINA izatea.

Baliabide juridiko horren bidez, ahaidetasuna errespetatzen du legeak, eta deitu haren oinordekoak deitzen ditu kausatzailearen oinordetzara ordezkatzeko eskubidearen bitartez.

Kode Zibilaren erregimenaren arabera, aurrez zehaztutako betekizunak bildu arren, kasu batean bakarrik ez da ordezkatzeko eskubiderik egongo: ZAPUZKETAN. Hain zuzen, horixe ezartzen du 923. artikulua: *repudiando la herencia el pariente más próximo, si es solo, o, si fueren varios, todos los parientes más próximos llamados por la ley, heredarán los del grado siguiente por su propio derecho y sin que puedan representar al repudiante.* Alegia, oinordetzara

deitutakoetatik, norbaitek jaraunspena zapuzten badu delazio-eskubidea egikaritzuz, horren ondorengoek ez dute ordezkatzeko eskubiderik; agian, bakarra baldin bada edo deitutako guztiek zapuzten badute, ondorengo horiek deituko dira berezko eskubidez oinordetzara, baina ez ordezkatzeko-eskubidez.

Alderdi **subjektibotik**, hiru pertsona daude ordezkatzeko-eskubidean, eta, ondorioz, honako ahaidetasunezko erlazio hauek izan behar dira kontuan:

(1) **Ordezkatuaren eta ordezkatzeko-eskubidez oinordetzara deituaren arteko ahaidetasuna:** ondorengoak bakarrik deitu daitezke oinordetzara (κzeko 925 eta 927. art.ak). Alboko lerroan, senideen umeen alde bakarrik onartzen da eskubide hori. Gauza ez da ordezkatuaren oinordetzan parte hartzea, kausatzailearen oinordetzan baizik: *no se pierde el derecho de representar a una persona por el hecho de haber renunciado a su herencia* (κzeko 928. art.).

(2) **Ordezkatuaren eta kausatzailearen arteko ahaidetasuna:** *el derecho de representación tendrá siempre lugar en la línea recta descendente, pero nunca en la ascendente. En la línea colateral sólo tendrá lugar a favor de los hijos de hermanos, bien serán de doble vínculo, bien de un solo lado* (κzeko 925. art.). Arau horretatik ondorioztatzen denez, ondorengoan lerroan ordezkatzeko eskubideak ez du mugarik; aldiz, kausatzailearen aurreko ahaidea ez da inoiz ordezkatu izango. Gurasa bada, eta kausatzaileak ondorengorik ez badu, hura izango da jaraunspena; baina, gurasa bada, ezin dira ordezkatu. Alboko ahaidetik balego, kausatzailearen senideak (neba-arrebak) bakarrik ordezkatu daitezke, baina bi muga kontuan hartuta: beren umeei (seme-alabek) bakarrik dute ordezkatzeko eskubidea, esaterako, bilobek ez dute eskubiderik eta, gainera, beren osaba-izebek (kausatzailearen senideek) onartu badute jaraunspena (κzeko 927. art.).

Ordezkatzeko eskubidearen titularrak gaitasunaren gaineko ohiko betekizunak bete beharko ditu kausatzailearekiko; ez, ordea, ordezkatuarekiko, *ius transmissionis*-ean gertatzen zenaren alderantziz.

Ordezkatzeko-eskubidearen **eragina** Kode Zibileko 926. artikuluan zehazten da: *siempre que se herede por representación, la división de la herencia se hará por stirpes, de modo que el representante o representantes no hereden más de lo que heredaría su representado, si viviera*. Hau da, lehenik leinuka (*in stirpe*) banatzen da jaraunspena, eta, leinu horretan, kideen arabera (*in capite*).

[K-ren oinordetzara F deitua badago eta hau hilik, desjaraunstua edo ezduina bada, S-k eta L-k ordezkatzeko dute, estirpez: hau da, F-k jaso behar zuena, S-k eta L-k jasoko dute, erdi bana]

Adierazi dugunez, legezko oinordetzan bakarrik gertatzen da ordezkatzeko eskubidea. Halere, salbuespen moduan, ordezkatzeko eskubidea onartzen da borondatezko oinordetzan, seniparteari buruzko eraentzan. Suposamendu hori Kode Zibileko 814.3. artikulua jasotzen du: *los descendientes de otro descendiente que no hubiere sido preterido representan a éste en la herencia del ascendiente y no se consideran preteridos*. Alegia, kausatzaileak jaraunsle bat izendatzen badu, eta jaraunsle hori kausatzailea baino lehenago hiltzen bada, jaraunsle izan behar zuen horren ondorengoek ordezkatzeko dute. Salbuespenezkoa da; izan ere, oro har, borondatezko oinordetzan ez dago ordezkapenik, eta aurrez hiltzen den kasuan bakarrik gertatzen da. Ezgaitasun eta duintasun ezaren kasuetan, 766. artikulua 761 eta 857. artikuluei egiten die erreferentzia, eta, matentzen da jaraunslari jaraunspenik gabe uzten zaion kasuetan; Kodeko 857. artikulua ematen du erantzuna.

**AB INTESTATO**

(929. art.)

**BORONDATEZKO OINORDETZA**

		<b>Borondatezko jaraunslea</b>	<b>Nahitaezko jaraunslea</b> (807. art.)
<b>AURREZ HILTzea</b>	Bai	Ez (766. art.)	Bai (814.3. art.)
<b>EZGAITASUN erlatiboa</b>	---	Ez (766. art.)	Ezinezkoa
<b>DUINTASUNIK EZA</b>	Bai	Ez (766. art.)	Senipartea (761. art.)
<b>DESJARAUNSTEA</b>	Bai	Ez (766. art.)	Senipartea (857. art.)
<b>ZAPUZTEA</b>	Ez	Ez (766. art.)	Ez (766. art.)

## **VI.-GEHIAGOTZE ESKUBIDEA (KZeko 981-987 art)**

Eremuaren ikuspegitik, gehiagotze eskubidea, ordezkatzekoa ez bezala, *borondatezko oinordetzan* agertzen da; legezko oinordetzan, norbaitek bere jaraunspena zapuzten badu, gainerakoak eskuratuko dute berezko eskubidez, ez gehiagotzearen bitartez (kzeko 981. art.).

Testamentu bidezko oinordetzan, beraz, testatzaileak pertsona bat baino gehiago deitu badu jaraunspenaren zati baten eta hauetariko batek ez badu nahi edo ezin badu bere zatia jaso, besteek hartuko dute hari zegokiona, testatzaileak kontrakorik esaten ez badu. Hala, gehiagotze eskubidea deitu batek 'libre' uzten duen zatia besteei gehitzea da, *abintestato* oinordetza ekiditzearren. Ulertzen da, kasu honetan, deialdia SOLIDARIOA dela, eta deituei talde gisa egiten zaiela. Testatzaileak taldeari egiten diola gonbitea eta taldeko batek huts egiten badu, besteek jarraituko dutela aurrera prozesuan zati handiago batekin.

**Izaeraz**, borondatea interpretatzeko arauak dira, ez nahiatezkoak, eta, ondorioz, kausatzaileak badu gehiagotzeko eskubidea borondatez zehazteko edo kentzeko aukera. Bestalde, ezbaian jar daiteke ea benetako eskubidea ote den edo, besterik gabe, jadanik norbaitek baduen ahalmena gehiagotzea ote den. Honako hauek dira eskubidea dela defendatzeko argudioak:

- (1) Kodeak gehiagotzeko eskubidea deitzen dio.
- (2) Kodeko 986. artikulua izendatuak utzitako zatia (*porción vacante del instituido*) aipatzen du.
- (3) Kodeko 981. artikulua dio oinordetza *abintestato* bada eta zapuzten bada, gainerakoek beti gehiagotzen dutela beren zatia; alegia, badirudi beste oinordetza motetan (borondatezkoetan) ez dagoela eragin automatiko hori. Ondorioz, eskubidea bada, titularrek —gainerako deituek, alegia— ahalmena izango dute zatia gehiagotu nahi duten erabakitzeko.

Hala eta guztiz ere, argudio horiek interpretazio literalean oinarritzen dira eta ez dute kontuan hartzen:

- (1) Kodeak akats teknikoak badituela.
- (2) Erakundeari zentzua ematen dion irizpide garrantzitsu bat urratzen dela: denak jaraunspen osora edo zati batera solidarioki deitu dituela testatzaileak eta legeak, ildo honetan, haren borondatea presumituz ezartzen duela eskubide hau. Hala, ez da besteren kuota

eskuratzeako eskubidea izango, norberak duena zabaltzea edo gehiagotzea baizik.

Borondatezko oinordetzan eta ezer adierazi ezean, gehiagotzeko eskubideak eragina izateko, **bi betekizun** eskatzen ditu Kode Zibileko 982. artikulua: *1. Que dos o más sean llamados a una misma herencia, o a una misma porción de ella, sin especial designación de partes; 2. Que uno de los llamados muera antes que el testador, o que renuncie la herencia, o sea incapaz de recibirla.*

Bigarren betekizuna azaldu behar da lehenik. Jakinik deitutako pertsona batek kale egin behar duela, hutsegite hori zein suposamendutan gertatzen den azaltzen da hor: **aurrez hiltzea, ezgaitasuna edo zapuzketa**. Hala ere, suposamendu horiekin batera, beste zenbaitetan ere gerta daiteke:

(1) *Duintasun eza: ezgaitasunarekin lot daiteke.*

(2) *Deitua jaiotzekoa bada eta ez bada jaiotzen edo ez bada pertsona izatera iristen.*

(3) *Absentzia (kzeko 191. art.).*

(4) *Baldintzapeko deia: esekitzailea izanik ez bada betetzen, edo suntsiarazlea izanik betetzen bada.*

(5) *Norbaiti egindako deia deuseza baldin bada.*

(6) *Jaraunspena onartzeko eskubideak preskribatzen badu.*

Aipatutako artikulua lehen puntuak, berriz, bi suposamendu eskatzen ditu: oinordetzara deituak gutxienik bi izatea eta zatiak bereziki esleitu gabe egotea. Kode Zibileko 983. artikulua argitzen du azken esaldi horren esanahia: *se entenderá hecha la designación por partes sólo en el caso de que el testador haya determinado expresamente una cuota para cada heredero. La frase “por mitad o por partes iguales” u otras que, aunque designen parte alícuota, no fijan ésta numéricamente o por señales que hagan a cada uno dueño de un cuerpo de bienes separado, no excluyen el derecho de acrecer.* Hasteko, azken borondatea ematen duenak ondasun jakinak esleitzen baditu, ez dago gehiagotzeko eskubiderik, *kuotak daudenean bakarrik* gerta baitaiteke; dena den, gerta daiteke lehenik izendapenak egitea kuotak esleituz eta ondoren ondasunak esleitzea. Kuota jakina zehazten bada jaraunse bakoitzarentzat berariazko aipamenez, ez dago gehiagotzeko eskubiderik; numerikoki finkatzen ez duen esaldia baldin badago, berriz, gehiagotzeko eskubidea onartzen da.

Esaldi horren interpretazioa eztabaidagai izan da; izan ere, esanahi bat edo bestea aukeratzeak ondorio desberdinak sortzen ditu:



(1) Legearen ikuspegitik kuota zenbakiduna baldin bada, badirudi ez dagoela gehiagotzeko eskubiderik, eta, numerikoki ez bada zehazten, berriz, onartzen dela. Konturatu nola kuota-numeroak erabili gabe zehazteak deitutako guztiei proportzio bera ematea dakarren, azken batean erdi bana edo zati berdinak.

(2) Doktrinan, gehiengoak defendatzen du kuota numerikoki zehazten bada ere gehiagotzeko eskubidea badagoela, kuota bakoitzarentzat kopuru bera zehaztu bada. Bestela, formula baten mende geratzen da, eta kasua berdina izanik, ez da zuzena esamolde edo formalismo huts bat erabili dela eta irtenbide guztiz desberdina ematea; gainera, erdibana esatea ere numerikoki zehaztea da. Azken finean, gehiagotzeko eskubidearen oinarria, denak denera deituak izatean datza, eta hori zati berdinetara deia egiten denean gertatzen da; ez du axola nola egiten den dei hori; numerikoki edo esaldi bidez izan daiteke. Zalantza gehiago sortzen du esateak gehiagotzeko eskubiderik badagoela kuotak desberdinak izango direla esaten denean.

(3) Jurisprudentziak, gehienetan, onartu du gehiagotzeko eskubidea jaraunspena berdin banatu izan denean, numerikoki finkatu izan bada ere. Hala eta guztiz ere, zenbait epaik interpretazio hertsia egin eta ez dute onartu gehiagotzeko eskubiderik banaketa numerikoki egin bada.

Gehiagotzeko eskubidearen **eraginak** Kode Zibileko 984. artikuluan jasotzen dira: *los herederos a quienes acrezca la herencia sucederán en todos los derechos y obligaciones que tendría el que quiso o no pudo recibirla*. Kontuan izan behar da deia bakarra dela, alegia, berez ez da besteren kuota eskuratzen, bakoitzarena zabaltzen baizik. Horregatik, ezin da hasierako zatia onartu eta gehitutakoa zapuztu. Onartzen bada, edo zapuzten bada, zati osoari buruzko adierazpena izango da; bestalde gehiagotzea gertatu aurretik edo ondoren onartzeak edo zapuzteak ez du garrantzirik. Aipatzen diren eskubideak eta obligazioak ez dira jaraunse izatetik sortzen direnak, gehiagotzeko eskubidearen objektu den zatiaren gain ezarritako zamak baizik. Obligazio horiek bete beharko dira, baldin eta txit pertsonalak ez badira.

Bukatzeko, beste zenbait zehaztasun berezi egin behar dira:

(1) Legezko oinordetzan, kontuan izan behar dira bi arau: *en las sucesiones legítimas la parte del que repudia la herencia acrecerá siempre a los coherederos* (kzeko 981. art.); *si hubiere varios parientes de un mismo grado, y alguno o algunos no quisieren o no pudieren suceder, su parte acrecerá a los otros del mismo grado, salvo el derecho de representación cuando deba tener lugar* (kzeko 922. art.). Horietan ere, gehiagotzeko eskubidea izango dute, nahiz kuota desberdinak izan; esaterako, lotura bateko edo lotura bikoitzeko anai-arrebak badira (kzeko 949. art.). Baina, berez, ez dago benetako

gehiagotzeko eskubiderik, legezko oinordetza arautzeko erregelak besterik ez baitira (AGE 2003/7/10).

(2) Seniparteari buruz, 985. artikulua zera ezarri du: *entre los herederos forzosos el derecho de acrecer sólo tendrá lugar cuando la parte de libre disposición se deje a dos o más de ellos, o a alguno de ellos y a un extraño. Si la parte repudiada fuere la legítima, sucederán en ella los coherederos por su derecho propio, y no por el derecho de acrecer.* Hasteko, **senipartearen zatian ez dago gehiagotzeko eskubiderik**. Aldiz, askatasunez xedatzeko herenean bai. Argitu gabe uzten da hobekuntzaren zatiak seniparte hertsiaeren erregimena segitzen duen edo askatasunez xedatzeko herenaren erregimena jarraitzen duen; izan ere, hobekuntzak bietatik jaso ditu elementuak: nahitaez norbaitzuei utzi behar zaie, baina askatasuna du xedatzaileak nahi bezala banatzeko. Badirudi, autoreek gehiagotze eskubidea hobekuntzan ere onartzen dutela, baina soilik hobetuen artean.

AGE 1989/12/26 (RAJ 8872): “Habiendo varios descendientes si entre los mejorados queda una porción vacante, en ella suceden por derecho propio los demás que sean legítimarios”.

AGE 2003/7/10: “La renuncia a la legítima en vida del causante es nula, como se desprende del art. 816 CC y no afecta a los herederos forzosos de la renunciante, que podrán reclamarla cuando muera aquél, pero la renuncia producida abierta la sucesión es válida y quien renuncia, renuncia por sí y también por su estirpe, incrementándose las cuotas que por legítima individual corresponden a los demás legítimarios por derecho propio y no por derecho de acrecer --art. 985.2 CC--. Por tanto, la renuncia del llamado no provoca la representación de su descendencia y su estirpe no puede representarle cuando repudia la porción que se le defiere y percibir lo que su ascendiente abdica o no quiere, y ello en virtud de lo dispuesto en el art. 929 CC, que sólo permite la representación de persona viva en los casos de desheredación y de incapacidad. Así, conforme al art. 922 CC, «si hubiere varios parientes de un mismo grado y alguno o algunos no quisieren o no pudieren suceder, su parte acrecerá a los del mismo grado, salvo el derecho de representación cuando pueda tener lugar», pero concreta y precisa el art. 923 que «repudiando la herencia el pariente más próximo, si es solo, o, si fueren varios, todos los parientes más próximos llamados por la ley, heredarán los de grado siguiente por su propio derecho y sin que puedan representar al repudiante». Tal desconocimiento por el legislador de la representación del repudiante resulta una fidelidad al principio *viventis non datur repraesentatio* y aunque se ha propugnado por algunos tratadistas que se acoja

por el legislador la eficacia representativa en la renuncia hereditaria, ello no es lo establecido por el CC en el sistema sucesorio y mientras no se cambie, tiene que mantenerse”.

(3) Legatudun eta usufruktudunei buruz zera dio Kodeko 987. artikulua: *el derecho de acrecer tendrá también lugar entre los legatarios y los usufructuarios en los términos establecidos para los herederos.*

(4) Usufruktua hainbati legatzen bazaie, 521. artikulua hauxe agintzen du: *el usufructo constituido en provecho de varias personas vivas al tiempo de su constitución, no se extinguirá hasta la muerte de la última que sobreviviere.* Zatia, hortaz, jabe soilarengana joan eta bere egoera kontsolidatu ordez, beste kideengana joango da. Gehiagotze estatikoa da hau, oinordetzaren eremuan planteatzen dena dinamikoa, ordea.

(5) Legeak esanbidez adierazten ez badu ere, fideikomisarioen artean ere onartzen da gehiagotzeko eskubidea, horiek ere jaraunsleak direlako.

## **VII.-IRAKURGAIK**

### **1. Delazio-eskubidea transmititza**

ALBALADEJO GARCÍA, Manuel (1952): “La sucesión *iure transmissionis*”, *Anuario de Derecho Civil*, 912-971.

FERNÁNDEZ ÁLVAREZ, José Luis eta César Carlos PASCUAL DE LA PARTE (1996): “Sobre el carácter meramente instrumental de la transmisión del *ius delationis* (ex artículo 1.006 del Código Civil). La posición jurídica del transmitente y del transmisario”, *Anuario de Derecho Civil*, 1541-1597.

MONTSERRAT VALERO, Antonio (1994): “La sucesión *iure transmissionis*, el concurso de delaciones en un mismo heredero y el impuesto de sucesiones”, *Revista Crítica de Derecho Inmobiliario*, 622. zb., 1037-1069.

### **2. Ordezkatzeko eskubidea**

ALBALADEJO GARCÍA, Manuel (2003): “La sucesión del descendiente ulterior del causante en lugar del descendiente intermedio no preterido (análisis del artículo 814, párrafo antepenúltimo, del Código Civil)”, *Actualidad Civil*, 753-769.

VATTIER FUENZALIDA, Carlos (1986): *El derecho de representación en la sucesión "mortis causa"*, Madril, Montecorvo.

### **3. Gehiagotzeko eskubidea**

ALBALADEJO GARCÍA, Manuel (1975): "La delación solidaria", *Revista Jurídica de Cataluña*, 449-482.

- (1975): "El derecho de acrecer en caso de institución en pactos desiguales", *Revista de Derecho Privado*, 351-373.

- (1990): "Acrecimiento en la mejora", *Revista de Derecho Privado*, 447-465.

## **VIII.-AZTERTZEKO EPAIAK**

AGE 1952/12/6: CÁMARA ÁLVAREZ, Manuel de la (1955): "El derecho de representación en la herencia testada y la preterición de herederos forzosos", *Revista de Derecho Notarial*, 7-88.

AGE 1989/12/26: LÓPEZ BELTRÁN DE HEREDIA, Carmen (1990): *Revista General de Derecho*, 1990 (urria-azaroa), 7489. or.

ENZOE 1998/1/22: MARSAL GUILLAMET, Juan (1998): *Cuadernos Cívitas de Jurisprudencia Civil*, 937-950.

## **IX.-KOMENTATZEKO TESTUAK**

(1) AGE 2000/6/27 (RAJ 5909): Para que un heredero pueda ser compelido al cumplimiento de las obligaciones contraídas por su causante, será preciso probar que ha aceptado la herencia, y en tal sentido viene reiterando la jurisprudencia que no constando que el heredero haya adido la herencia no puede ser demandado por responsabilidades que pudiera tener el testador, ni cabe condenarle al pago de cantidad alguna en tal concepto de heredero. En materia de adquisición de herencia, y con relación al régimen sucesorio del Código Civil, resulta incuestionable que rige el denominado sistema romano caracterizado porque no basta la delación hereditaria (apertura, vocación y delación) para ser titular del derecho hereditario, sino que además es preciso que el heredero acepte la herencia, lo que puede efectuarse de forma expresa o tácita. Producida la delación, el heredero –el llamado a heredar en concreto-, como titular del *ius delationis*, puede aceptar o repudiar la herencia, pero en tanto no acepte, como se ha dicho, no responde de

las deudas de la herencia, porque todavía no se produjo la sucesión – no es sucesor, sino sólo llamado a suceder-. Si acepta responderá incluso con sus propios bienes, salvo que la aceptación expresa tenga lugar con arreglo a lo prevenido para disfrutar del beneficio de inventario.

(2) AGE 1962/11/6 (RAJ 4192): Si bien es verdad que el derecho de acrecer constituye una derogación del orden normal de suceder, según reconoce la doctrina científica, y en tal sentido tiene que ser interpretado restrictivamente y no en el amplio que afirma la sentencia recurrida, no es menos cierto que tal derecho de acrecer tiene su fundamento en la voluntad presunta del testador, por lo que, en cada caso concreto hay que examinar los actos anteriores y coetáneos al momento en que se haya de producir, para indagar cuál pudo ser la voluntad del causante cuando hizo la institución, y si tal voluntad persistió desde entonces hasta su fallecimiento (...). Para que se produzca el derecho de acrecer se exige, además, además de la existencia de una porción vacante en la herencia, que haya una conjunción de llamamientos, conjunción que requiere, a su vez, la concurrencia de las tres condiciones que señala el artículo 982 del Código Civil, a saber: *a)* llamamiento de dos o más personas; *b)* que esas dos o más personas sean llamadas a una misma herencia, o una misma porción de ella; y *c)* que a dichas personas no se les asigne una parte especial en la herencia o porción a que han sido llamadas; pero bien entendido que -como tiene cuidado de puntualizar el artículo 983-, «la frase "por mitad" o "por partes iguales" u otras que, aunque designen parte alícuota, no fijen ésta por señales que hagan a cada uno dueño de un cuerpo de bienes separados, no excluyen el derecho de acrecer».

